2011-XII-20
Número **355.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Artzain ona

Norberaren erantzukizun eta ardurei erreparatu gabe, azken egunotan makina arduradun eta agintari politiko saiatu dira Metroko langileen aurkako giroa asaldatzen. Zuzendaritzak Metroko kudeaketan eginiko hanka sartzeaz aparte eta sortutako kargu bereziak aparte, ez ditu bete langileon ordezkaritzarekin hitzarturiko konpromisoak. Eta hor, ez beste inon, dago gatazkaren mamia. Genion bezala, iritzi publikoa langileen aurka jartzea izan da agintarien jomuga, hartara bide guztiak erabili direlarik.

Ziur aski esanguratsuenetakoa Lehendakaria beraren adierazpenak izan dira. Bere buruari zor dion oinarrizko eskubideen babesa eta betebeharrari kale eginez, Lehendakaria greba eskubidearen aurka oldartu da, bereziki berak zaindu beharko lukeen oinarrizko eskubidea. Lehendakariak ez du oreka puntu txikienik ere erakutsi; ez du jakin nahi izan zergatik zuzendaritzak hautsi dituen hartutako konpromisoak eta nola behartu dituen langileak presio neurriak hartzera.

Are gehiago egin du Lehendakariak. Lanean jarri ditu Lan eta Barne Sailak greba eskubidea zapuzteko, nonbait Metroko langileen eskubideaz aparte gainontzeko herritarrak taloa eta txorizoa dastatzeko eskubidea lehenetsi behar baita. Agindu die Lan Sailari gehiegizko gutxieneko zerbitzuak jar ditzan eta Barne Sailari agindu hori behar bezalako eraginkortasunez bete dadin. Gainera, ehunen bat pertsona kontratatuko dute egun horretako segurtasuna bermatzeko. Lanpostuak sortzeari eskerrak eman beharko dizkiogu gainera, alajaina. Barregarria, gai askoz larriagoa ez balitz.

Norberaren erantzukizunak eta gabeziak ezkutatu nahi direnean ez dira falta, etorri zerutiarraren baitan, lehendakariari olatua egin eta astakeria galantak botatzen dituztenak. Horra hor Pastor PSEko buruzagiak esanak sindikalistak aldatu behar direla. Arazoa nonbait sindikalistena. Agian, artzain onaren pareko Pastorrek artalde otzana nahi gaitu, agian. Ba, ez, ez gaude horretan.

**ELAk Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak iragarri dituzten aurrekontu-proiektuen aurkako mobilizazioak egin zituen abenduaren 14 eta 16an**

# BIDEGABEAK ETA ANTISOZIALAK

**Okerreko bidetik doaz. Edo, bestela esanda, okerreko bidetik jarraitzen dute. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuek arazoak larriagotzea eta langabezia eta gizarte babesgabetasuna areagotzea eragingo dute. Iragarri dituzten aurrekontu bidegabe eta antisozialek gastu publikoaren murrizketa sakona ekarriko dute. Eta, ezin ahaztu, murrizketa hauei aurreko ekitaldietan egindakoak batu behar zaizkiela.**

Hain zuzen ere, egoera larri hau salatzeko ELAk bi mobilizazio egin zituen iragan astean. Lehenengoa Bilbon izan zen, abenduaren 14an; bigarrena, Iruñean, abenduaren 16an. Gizarte politiken arduradun Mikel Novalek nabarmentzen duen legez, bi ekitaldien helburua bat eta bakarra izan zen: bestelako aurrekontuak posible direla ozen aldarrikatzea.

"Hego Euskal Herriko administrazioek gastu publikoa handitzeko marjina dute. Izan ere, askoz diru-sarrera handiagoak lortu ahalko lituzkete, zerga gastuak murriztuz, edo diru-bilketa handitzea ahalbidetzeko moduko zerga-sistema batera aldatuz. Eta, horretarako badituzte tresnak: soldatakoak ez diren errenten zerga-iruzurraren kontra borrokatzea edo errenta handiei eta kapital errentei zerga presio txikiagoa ekarri dieten zerga erreforma guztiak lehengoratzea bezalako neurriak hartzea euren esku dago".

> *"Los gobiernos de la CAPV y Navarra han decidido reducir de forma considerable el gasto público a pesar de que podrían obtener más ingresos vía reforma fiscal"*




# POR LOS DERECHOS DE LOS PRESOS Y PRESAS POLÍTICAS VASCAS

ELA ha decidido adherirse a la manifestación convocada por *Egin Dezagun Bidea* para el 7 de enero. Asimismo, como viene haciendo, el sindicato estará presente en las concentraciones que tendrán lugar en todos los pueblos y ciudades del país el 30 de diciembre, como cada último viernes de mes. Para hacer el llamamiento a estas movilizaciones ELA promoverá el reparto masivo de una hoja informativa.

Xabi Anza, responsable de formación de ELA, denuncia la continua vulneración de derechos que sufren los presos y presas políticas vascas. "Analizando la situación se pueden subrayar tres conculcaciones principales. En primer lugar la dispersión de los presos y presas por toda la geografía española y francesa. Es una práctica contraria a los objetivos penitenciarios propios de una sociedad democrática, además de un castigo inmenso para las familias que periódicamente deben hacer miles de kilómetros para ver a sus allegados/as. En segundo lugar, la situación de los presos enfermos, y en especial la no excarcelación de quienes padecen enfermedades graves incurables. Una decisión contraria a la más mínima humanidad. Y, en tercer lugar, el alargamiento de las condenas, algunas de facto de por vida, por la no aplicación de beneficios penitenciarios o la libertad condicional".

> *ELA, euskal preso politikoen eskubideen defentsan duen konpromisoari jarraituz, presente egongo da urtarrilaren 7rako Egin Dezagun Bidea ekimenak deitutako manifestazioan, eta, ohikoa den bezala, abenduaren 30an, hilaren azken ostiralean alegia, hiri eta herrietan egingo diren bilkuretan.*

ELA 100 URTEZ
euskal sindikatua




***Bilbao, 14 de diciembre. A la mañana varios cientos de delegados y delegadas de reunieron en el Teatro Campos Eliseos para analizar el proyecto de presupuestos de la CAPV. A continuación se celebró una manifestación hasta la sede del Gobierno vasco en Bilbao, en Gran Vía 85.***




***Iruñea, 16 de diciembre. El frontón Labrit acogió alrededor de 1.500 delegadas/os que denunciaron que con estos presupuestos habrá más recortes, más paro y más crisis. Por ello exigieron unos presupuestos sociales. Tras la asamblea las personas reunidas se manifestaron por las calles de Iruñea.***

Novalek salatzen duenez, iragarritako aurrekontuekin aberastasunaren banaketa bidegabearen hautua egiten dute bai Patxi Lopezek zein Yolanda Barcinak. "Hartu duten bidea litekeen bidegabeena eta antisozialena da, krisia biztanleria osoari jasanarazten diolako, eta, bereziki, euren beharrak asetzeko berezko aukera gutxien dituzten pertsonei".

Europako inguruneko herrialdeen aldean ditugun defizit sozial handiak handitu besterik ez direla egingo nabarmentzen du Novalek. "Hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean edo gizarte-zerbitzuetan ditugun defizit sozial handiek berean jarraituko dute, edo areagotu egingo dira. Datuak, hamaika aldiz salatu dugun bezala, hor daude. Gurean gizarte babesera bideratzen diren baliabide ekonomikoak Barne Produktu Gordinaren %19 dira; Europar Batasuneko babez bestekoa, berriz, %27an dago. Alde hori dirutara eramango bagenu, urtean 5.200 milioi euro gehiago izango genituzke gizartegastura zuzentzeko".

"Argi dagoena zera da: aurrekontu bidegabeak eta antisozialak dira, egoera are eta gehiago okertuko dutenak".

# "UNOS PRESUPUESTOS ASQUEROSOS"

En el último encuentro que mantuvo ELA con Patxi López, Adolfo Muñoz, secretario general, y Amaia Muñoa, secretaria general-adjunta, le transmitieron en nombre de todo el sindicato al Lehendakari su más enérgica repulsa al proyecto de presupuestos anunciado por su Gobierno. "Lehendakari, son unos presupuestos inmorales". Patxi López, máximo responsable institucional de esos presupuestos, no dudó a la hora de responderles. "No, son unos presupuestos asquerosos". Es una mera anécdota, pero muy significativa. Y si no fuera por la extrema gravedad del tema, podría ser hasta divertida.

Adolfo Muñoz, *Txiki*, denunció duramente tanto en Bilbao como en Iruñea la actitud del Gobierno vasco y del Gobierno de Navarra. "Las administraciones de Hego Euskal Herria cuentan con un amplio margen para poder aumentar el gasto público; podrían obtener más ingresos reduciendo los gastos fiscales, o con un cambio de fiscalidad que posibilite una mayor recaudación (luchando contra el fraude fiscal de las rentas no salariales, y revirtiendo todas las reformas fiscales que han derivado en una menor presión fiscal para las rentas altas y las rentas de capital). Por tanto, la opción tomada por el conjunto de las administraciones de la CAPV y de Navarra es la más injusta y la más antisocial de las posibles, ya que han renunciado a modificar sustancialmente la estructura fiscal, con lo que los recortes del gasto hacen recaer la crisis sobre el conjunto de la población, y en especial sobre quienes más necesitan del gasto social".




Muñoz recalcó que sólo se pueden entender unos presupuestos así desde el convencimiento de que la clase política gobierna al dictado de la gran banca y de la patronal. "No sólo lo decimos nosotros, también lo afirma la OCDE, una organización nada *sospechosa* en ese sentido. La brecha entre ricos y pobres está creciendo de forma alarmante. Y, ¿qué dicen ante estos los políticos? Nada, que no hay otra alternativa. Pues nada, es hora de negar esa mentira. Sí, hay alternativa. Y gran parte de esa alternativa pasa por organizarnos. ¿Cómo? Primero defendiendo condiciones de trabajo dignas, y para ello no hay otro camino que sindicalizar. Y segundo, demandando políticas de solidaridad. Están fabricando una inmensa bolsa de pobreza que cada vez afecta a más gente. Si no paramos estos ataques nuestra gente cada vez lo irá pasando peor".

## El 9 de febrero se ha convocado un paro de cuatro horas en la administración pública para denunciar los nuevos recortes anunciados

# ELA ABANDONA LA MESA GENERAL DE FUNCIÓN PÚBLICA

Los representantes de los sindicatos ELA y LAB no acudieron el pasado 15 de diciembre a la reunión de la Mesa General de la Función Pública. Estos sindicatos exigen al Gobierno vasco que retire la batería de recortes de servicios públicos y derechos laborales presentados en la Mesa General y recogidos en el proyecto de presupuestos.

De aprobarse definitivamente la Ley de Acompañamiento de Presupuestos en los términos previstos por la enmienda del PSE y del PP, supondrá que el personal de las administraciones vascas no cobrarán ni un euro los tres primeros días de baja, del 4º día al 21º que estén de baja percibirán el 60% de su salario y del 21º en adelante el 75% de su salario.

En opinión de ELA se quieren cargar de un plumazo la negociación colectiva de la Mesa General. Además, con las enmiendas presentadas por PSE y PP también pretenden acabar con los acuerdos vigentes en el conjunto de la Administración y Empresas Públicas que pudieran suponer incrementos salariales.

Para responder a esta nueva agresión contra los derechos de las y los trabajadores públicos, ELA, junto con LAB y STEE-EILAS, ha planteado un calendario de movilizaciones para los próximos meses, en defensa de un sector público que sea capaz de hacer frente a las necesidades de la sociedad y posibilite la recuperación económica, creando empleo público nuevo.

La primera movilización está prevista para el jueves 26 de enero, día en el que se realizarán manifestaciones en Gasteiz, Donostia y Bilbao. Por su parte, el jueves 9 de febrero está convocado un paro de cuatro horas para todo el personal de la administración pública, además de manifestaciones en las tres capitales de la CAPV. Sin olvidar, por supuesto, las reuniones, asambleas y concentraciones convocadas en los centros de trabajo para las próximas semanas.

# KUTIZIA SUNTSITZAILEA DA; ELKARTASUNA EZ




Gobernuburuek kapitalari men egiten diotenean haienak egin du. Datu honek ere agerian uzten du krisia, ekonomikoa ez ezik, funtsean politikoa eta demokratikoa dela. Zapaterok eta beste hainbat *sozialdemokratak* eskuineko politika egin dute, eta orain hauen tokia Rajoyk zein Goldman Sachseko gizonek hartzen dute, Grezia eta Italiako gobernuetan, Europako Banku Zentralean (EBZ)...

Kapitala, kutiziaren ikurra, krisiaz eta menpekotasun politikoaz baliatzen da *doikuntza estrukturalak* inposatzeko eta kapitala metatzeko aldi berri bati ekiteko. Politika hauek ezarri diren herrietan, Argentinan kasu, soldatek aberastasunean zeukaten zatia %50etik %23ra jausi zen. Izugarria eta latza. Jendea txirotzeko estrategia kupidagabea. Helburu hau lortzeko, EBk eta estatuetako gobernuek irtenbide solidario oro eragozten dute eta suntsitu nahi dituzte eskubide laboral nahiz sozialak, negoziazio kolektiboa; kapitalak zergarik ez ordaintzea nahi dute, gizarte-gastua murriztu, publikoa dena pribatizatu eta negozio pribatuari bide eman hezkuntzan, osasungintzan edota gizarte-zerbitzuetan... Neoliberalismoaren teoriko izan zen Milton Friedmanen ideiak Europan hedatu dira. Kapitalismo aseezinak –eskubide, bizitza eta ingurumenaren suntsitzaileak–, politikariak artaldea bailiran gidatzen ditu; baina are okerragoa da politikak pentsamolde hau onartu egiten duela.

**Langabezia hazten ari da, eta gehiago haziko da.** Lanik gabe geratzea gure jendearentzat loteria sari madarikatu baten antzeko zerbait bilakatu da. Edonork daki, baita inozoenak ere, murrizketa- eta erreforma-agendak ekonomia erreala deprimitzen duela, hots, enplegua sortzen duen ekonomia, eta langabezia handiagoa dakarrela. Enplegua ez da erreforma laboralak eta negoziazio kolektiboaren erreformak eginez sortzen; aldiz, jarduera ekonomikoaren fruitu da, eta hau itota dauka banku eta aurrezki-kutxen egoerak. Jasotzen duten diru publiko guztia lurrundu egiten da. Bankuek EBZtik dirua %1,25ean jasotzen dute, eta Zor Publikoarekin espekulatzeko aukera ematen zaie, %7ko interesekin. Interesok, bide batez, defizit publikoa handitzen dute, eta hau murrizketa gehiago inposatzeko aitzakia bihurtzen da. Benetako erokeria da hau. Finantzaboteréak agintzen du. Europako Kontseiluko txosten batek (Greco) Espainiako beste ustelkeria mota bat salatu du: Alderdiek –ez du izenik aipatzen– bankuei eskatzen dizkieten maileguak ez omen dituzte itzultzen. Zer dela-eta dira bankuak hain eskuzabal? Begibistakoa da: eguneroko politikan kobratzen du zorra. Bankuek, patronal handiek eta hauen lobby-ek agenda ezkutu bat daukate, politika euren mesedetan jardun dadin. Baina bitartean, kredituriк ez dago.

## BIDEGABEA ETA EZGAUZA

**Soldatak jaitsi ahala, langabezia ugariago.** Aberastasunaren banaketan 7 puntu galdu dugu. Ez dago soldatak *apaltzeko* inongo arrazoirik. Patronalak soldatak murriztea era askotara lortzen du. Eragingarriena, lanean hasten direnei ezartzen dizkien baldintza negargarriak. Beste bide bat xantaia da: enplegu-erregulazioko espedientea (EEE) soldata jaitsierarekin lotzea, jakinik lanagintaritzak espediente guztiak onetsiko dituela. Baiki, langileez libratzea –kaleratze zein EEE bidez– oso erraza eta merkea da, eta kanporatuen ordez sartzen direnek soldata miserableak izango dituzte. Gezurtatu egin behar da soldatak debaluatu beharra zuritzeko erabiltzen den diskurtsoa: "Dirua debaluatu ezin denez, soldatak jaitsi behar dira, horrek barne-kontsumoa deprimituko badu ere. Soberakina kanpoan salduko dugu". Honi *eredu esportatzaile* esaten diote. Hots, oinarritzat prekarietatea hedatzea daukan eredua. Baina eredu hau injustua da, eta ezgauza, gainera. Izan ere, *lehiakideek* gauza bera egiten baitute, eta horrela abantailarik ez da lortzen. Hautu hau ezin da onartu, ekonomia kolapsora eta txirotze orokorrera baitarama. Soldaten alde egin behar da, eta horretarako sindikatuak bere boteretresnak berrindartu egin behar ditu. Ez dago beste biderik.

**Fiskalitatea, lotsagarri.** Presio fiskala handitu egin behar da, aberatsei eta kapitalei eman zaizkien opariak beren onera ekarraraziz eta dagoen itzelezko iruzurrari jazarriz. Zapatero ausartu zen esatera "ezkerrekoa da zergak jaistea". Bada, opariok, hein handian, ekonomia erreala txikitzen lagundu dute, beren fruituak ez baitira inbertsio produktibora bideratu, espekulaziora eta paradisu fiskaletara baizik. Euskal ogasunek autogobernua paradisu horien pare jartzen saiatzeko baliatu dute; patronalaren diskurtsoa bere egin dute: behin eta berriz diote –hedabideetan oihartzun handia lortuz– aberatsei zergak igoz gero inbertsioa gutxitu egingo dela. Euskal ogasunak kapital-errententzako pribilegioereduen bila jarraituz gero, azkenean Esperanza Aguirrek (Madrilgo PPkoak) erabakiko du estatu guztiko zerga-politika. Eta ez gaude une horretatik hain urrun. Herri bakoitzak bere *Tea Party* badu, baita Euskal Herriak ere. Presio fiskalik handiena duten herrietan gizarte-gastua, solidaritatea eta arlo publikoa handiagoa da, baita enplegu maila altuagoa ere. Zergatik baztertzen da bide hori? Oso erraza da: fiskalitate kontuan ere Ogasunak patronalaren esanetara daudelako. Horregatik ez dute eztabaidarik nahi, ez ELArekin, ez alternatibarik plazaratzen duen inorekin ere, eta horregatik eramaten dute gaia Zerga-Koordinaziorako Organora (ZKO); erakunde honek edozein sektak baino kode sekretuagoak ditu. Ez dago eskubiderik. Funtsezko akordio bat dago alderdien artean alternatibak proposa ditzaketen erakundeak baztertzeko eta gizarteko eztabaida eragozteko. Akordio hori medio, pedagogia soziala ere alboratu egiten dute, eta pedagogia hau gure ustez behar-beharrezkoa da.

## ONTZIA HONDORATZEN ARI DA, BAINA...

Alde bakarreko politika eta sindikalismoa. Politika alde bakarrekoa denean eta patronalak hari eskatzen dion guztia lortzen duenean, lan sindikala zailagoa da. Hau nabarmena da. Botereak ez du mundu sindikalarekin akordiorik nahi; aurkako den aldetik desagerrarazi egin nahi du benetan. Hori bai, sindikaturen bat horretarako prest badago, funtzio apaingarri eta ordaindu bat ematen zaio, gizartea desmobilizatzen lagun dezan. Harrapaketa honi ezin zaio *gizarte-elkarrizketa* deitu. Sindikalismoak benetako indarra bere jendearen artean, bere klasearen aurrean legitimatuz gero aurkituko du, bere botere-baliabideak mobilizatzen dituen heinean.

**Sindikatuak baditu besteren eskuetan utzi ezineko ardurak.** Lehenik, babesik ez ematea botere politiko eta ekonomikoari (hauek oreka izateko aukera erabat baztertu dute). Bigarrenik, antolakuntzari lehentasuna ematea, hori baita lantokietan eta gizartean errespeta dezaten daukan bide bakarra. Hirugarrena, menpekotasunik ez onartzea, ez alderdiekiko, ez finantzei dagokienez (hau kontrolatzeko modu oso eragingarri eta aktuala dugu). Azkenik, alternatiba azaltzea eta gauzak egiteko moduak ezkutatzen duen manipulazio handia agerian uztea. Zein da helburua? Gizartea mobilizatzea. Ezin da indiferentziaz jokatu; larrutik ari gara ordaintzen, baina oraindik ez dugu icebergaren benetako neurria ikusi.

Agi denez, Titanic itsasontzia urpera zihoala, bere kapitainaren kezka musikariek jotzen jarraitzea omen zen. Neoliberalismoaren muga estuak ontzat ematen dituen klase politikoarekin antzeko zerbait ari da gertatzen: Jarrai dezala musikak! Zarata egin behar da, zarata handia, jendea inguruan jazotzen denaz kontura ez dadin. ELAk ez du emanaldi honetan parte hartuko.

***Adolfo Muñoz, Txiki,***
***ELAko idazkari nagusia***

*Dicen que cuando el Titanic se hundía su capitán estaba preocupado porque la banda de música siguiera tocando. Algo similar sucede con la clase política.*

## Labur Breves

### • 22 de diciembre: reunión del Consejo Nacional en Ataun

El jueves 22 de diciembre se reunirá el Consejo Nacional de ELA en Ataun, máximo órgano intercongresos. El Consejo Nacional analizará, entre otros temas, el desarrollo del año 2011 y la actual coyuntura socio-laboral. Además, se analizará cómo se presenta el 2012. El Consejo Nacional comenzará a las 09:30, y se celebrará en la Casa de Cultura.

### • 'ELA en la Segunda República' liburua kalean da

Dario Ansel historialari italiarrak idatzitako *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera* liburua kalean da dagoeneko, Txalaparta argitaletxearen eta Manu Robles-Arangiz Fundazioaren eskutik. Liburua ELAren mendeurrena ospatzeko iragarritako ekimenen barruan dago.

### • La decisión de abrir algunos comercios en Bilbao ha fracasado

Ante el anuncio de las tiendas For, Ganso y Man de abrir el domingo 18 de diciembre, las y los trabajadores del comercio, llamados por los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT, se concentraron bajo el lema *Jaietan denok jai* frente a la tienda de For de la Gran Via de Bilbo. Marige Fernández, responsable del comercio en Bizkaia, destaca que, pese a la gran campaña de propaganda realizada, el número de consumidores que se acercó hasta la tienda apenas fue de media docena. En opinión de Fernández, el rotundo fracaso es debido a que las y los consumidores vascas ni necesitan ni entienden un modelo de ciudad basado en el consumo sin límites.

### • El recorte de derechos genera mayor indefensión

El 18 de diciembre se celebró el Día Internacional por los Derechos de las Personas Migrantes Trabajadoras y sus Familiares. Con motivo de ese día ELA quiso mostrar su preocupación por la continua política de recortes sociales, la eliminación de derechos y las consecuencias que estas medidas están teniendo también en el alto porcentaje de personas inmigrantes en riesgo de exclusión social. En la imagen la concentración realizada frente al Teatro Arriaga de Bilbao.



## Los acuerdos estatales en el sector del Metal y del Comercio evidencian la centralización de la negociación colectiva

# SINDICALISMO VERTICAL Y MONOPOLIO PARA ATACAR A LOS SALARIOS



En el contexto de las negociaciones en Madrid del primer convenio estatal del Metal y del Acuerdo Marco del Comercio, la patronal y los sindicatos CCOO y UGT han llegado a un preacuerdo sobre estructura y ordenación de la negociación colectiva. Estos preacuerdos confirman las peores expectativas de nuestra organización sobre las consecuencias y el alcance de la reforma de la negociación colectiva aprobada el 11 de junio. Las patronales estatales y los sindicatos UGT y CCOO se reservan en exclusiva las materias fundamentales de negociación, marcan los criterios generales de las no exclusivas, deciden qué convenios valen y cuales no, así como todo lo relacionado con los chiringuitos formativos. Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, ha denunciado este ataque sin precedentes a la libertad sindical, que persigue un empobrecimiento generalizado de las condiciones laborales. Todo hace prever, además, que intentarán extender estos acuerdos al resto de sectores profesionales. Villarreal vuelve a insistir en la necesidad de sindicalizar las empresas porque "no habrá reforma ni convenio que consigan imponernos donde estemos fuertes".

**-¿Qué primera valoración hacemos de los preacuerdos sobre estructura y ordenación de la negociación colectiva alcanzados en el Metal y el Comercio a nivel estatal?**

-Rajoy no tiene necesidad de hacer otra reforma de la negociación colectiva. Es innecesaria con acuerdos como el que CCOO y UGT han firmado con las patronales de ambos sectores (CEOE). Su contenido responde al interés empresarial de atacar a los salarios, desregular y flexibilizar las condiciones de trabajo, sumándose, así, a las reformas que abren ámbitos inmensos de precariedad laboral y aceptando que la negociación colectiva sea un instrumento para extenderla.

**-¿Cómo lo hacen?**

-En primer lugar, garantizándose el monopolio y el verticalismo sindical. Todo se decide a nivel estatal sin respetar las realidades laborales y sindicales diferenciadas que existen en Hego Euskal Herria o Galicia. Está claro que en su día no nos equivocamos cuando denunciamos que la reforma de la negociación colectiva que hizo Zapatero –apoyada por el PNV sin tan siquiera hablar con el sindicalismo vasco– recogía las demandas de CCOO y UGT en cuanto a la estructura de la negociación colectiva.

Estos acuerdos apuestan decididamente por la centralización y van mucho más allá del contenido mínimo que el artículo 84 del Estatuto de los Trabajadores reserva para los ámbitos estatales. Se amplían las materias exclusivas de negociación –como la jornada anual máxima– y se establecen criterios generales para aquellas otras que consideran compartidas.

**-Todo el mundo sabe que los convenios estatales son muy inferiores a los territoriales. ¿Cómo se entiende que UGT y CCOO hayan rubricado este golpe brutal a las condiciones laborales de la clase trabajadora?**

-Muchas de las materias que estos preacuerdos se reservan para su negociación exclusiva en el ámbito estatal están relacionadas con un objetivo espurio: preservar la supervivencia y el control de las fuentes de financiación que esas organizaciones sindicales y la patronal obtienen por la gestión de programas de formación, tarjetas profesionales, comisiones y fundaciones, etc... Quieren mantener un sistema que, además de costoso, ha demostrado su inutilidad. Así pues, sumado al interés monopolístico, el de la financiación es el otro objetivo que obtienen CCOO y UGT con este tipo de acuerdos. Con tal de mantener esas fuentes de financiación dan cobertura a retrocesos de esta magnitud.

**-Aunque los has esbozado de manera muy general, desgránanos los puntos más regresivos.**

-Se amplía el número de materias de competencia exclusiva reservadas al ámbito estatal de negociación que se contemplaba en el articulo 84 del ET. Pero es que, además, en el caso del metal, se dice que el convenio colectivo estatal podrá regular los criterios generales de las no exclusivas; es decir, a niveles inferiores se podrá negociar menos y, además, establecerán los límites. Intentan matar el derecho a la negociación colectiva de los trabajadores/as ya que no te dejan negociar lo que quieres ni su alcance.

Otro punto muy grave es que se plantea que los convenios sectoriales dejen de vincular, de ser el mínimo garantizado para los trabajadores del sector. Es decir, en la empresa se pueden negociar convenios por debajo del sectorial.

Se considera ineficaz lo que contradiga lo estatal: cualquier regulación establecida en un ámbito inferior que sea contradictoria a las estatales se considerará no pactada y por tanto, carente de eficacia, no siendo de aplicación en supuesto alguno. Así mismo, para abrir un ámbito nuevo de negociación hay que comunicarlo a la comisión paritaria del convenio sectorial, tal y como se recoge en el acuerdo del Metal.

La conclusión es una unidad de mercado y de España para bajar nuestros salarios. La patronal, contenta, porque rebajan condiciones laborales y salariales; es decir, incrementarán sus ganancias. El sindicalismo español obtiene un monopolio sindical –no ganado en las urnas en realidades como la nuestra– y garantías de financiación. Y todo ello, en perjuicio de una clase trabajadora que va a tener que pelear muy duro por mantener sus condiciones y del sindicalismo de contrapoder.

**-Se cumplen los peores augurios... ¿Y ahora qué?**

-A riesgo de parecer repetitivo mi mensaje es el de siempre. Sólo hay un camino: el de la lucha, y para ello tenemos de sindicalizar, tenemos que organizarnos, tenemos que plantar cara. Hay que repetirlo hasta que nos convenzamos de ello: no habrá reforma ni convenio que consigan imponernos donde estemos fuertes. Hoy más que nunca hay que estar con la gente y hacer frente a esta nueva oleada de recortes que van a pretender aplicarnos; esta vez, con la vergonzosa connivencia del sindicalismo español.

**www.ela-sindikatua.org**


ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207